



V URTEA - N.º 54

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Zemendia (II) 1958

AITA SANTU BARRIA

Atzo, alako ikara ta dardara samiña sentidu eban Kristiandade guztiak, Aita Santua il zala-ko. Gaur, barriz, poza ta alaitasuna dakargu azur-mamiñetan, Aita Santu barria dogulako. Len Pio XII garrena, orain Juan XXIII garrena. Gizona aldatu da, baiña kristiñauen begietan gauzak bardin-bardin jarraituten dabe, Aita Santua beti da Kristoren izenean eta Kristoren lekuan dagoana.

Lurreko Eleizeak bear dau buru bat, eta au agirizkoa, begiakaz ikusi daitekena, guztion Maisu, artzain eta gidari, Kristok berak, zeruetara igon baiño len, izentau eban San Pedro kargu orretarako. Danak dakigu bera izan zala lenengo Aita Santua. Ordutik ona, ia bi milla urte igaro dira, baiña Aita Santuak etenbako kate luzean datoz, San Pedrotik asi eta gaur arte. Gizona, ilkorra da, eta bat ilten danean, beste bat ipiñi bear. Gizon bakotxa, ereztun berezi bat, kate luze orretan. Eta zein pozgarri ta konsolagarri dan katearen luzeari begiratutea!

Kristok bere berba ospetsuak esan utsalzan San Pedrori: "Tu es Petrus. Zu zara Arria, Argatxa. Eta arri orren gainean jasogo dot Nik neurre Eleizea. Eta inpernuko indarrak ezin izango dabe ondatu Eleiza ori." Etxe bat egiten danean, oiñarritik asi bear izaten da lenengo. Lurra zulatu bear izaten da, arik eta arri bizia topau artean. Au aurkitu danean, ba-dogu oiñarrria, etxearen benetako euskarria. Arri orren gainean ipinten dira gero zimenduak eta ormak, eta orrela bildur barik egin leike etxea. Ezta jausiko, ezta kili-kolo ibilliko, arri-gaiñean sendo ezarrita dagoalako. Aize gogorak eta ujolak etorriarren, beti tente, sendo eta zutunik iraungo dau, azpiko arriari eutsita dagoalako. Are-gaiñean edo lur utsaren gainean egiñiko etxeak eztau sendotasunik, eta gixien uste danean lurrera jausten da. Iñoiz irakurten dogu periodikuetan zelan jausi direan etxe galantak, eta askotan izaten da ori oiñarrria ondo artu barik etxea egiten asi zirealako.

Kristoren-Eleizea be etxe baten modura egiña dago, eta etxe onek ba-dauka bere oiñarri sendoa, bere arri bikain-bikaiña: Erromako Aita Santua. Ortik yatorako Eleizeari bere sendotasuna. Eta ori ba-dakie ondo Eleizearen arerioak (askotan geuk bezain ondo, edo obeto, bearbada). Komunisten naziñoetan zer jazoten dan ikusi besterik eztago. Komunistak, askotan beintzat, ez-

tira asiko aurrez-aurre eta agiri-agirian Eleizeari gerrea egiten. Ez. Esango dabe erlegiñoa errespetau gura dabela, eta euren artean eleiza guztiak zabalik dagozala gura dabeneztat. Baiña asten dira katolikuei belarrira esaten: "Zuek zetako egon bear dozue Erromako Aita Santuaren menpean? Zuek libre zarie, jarri zaitzeze zuen buru, apurtu zuen lokarriak Erromagaz". Eleiza nazionalak nai dituez sortu, eleiza zatituak, apurtuak, batasunetik urrunduak. Ori izan da, orain arte beintzat, Komunisten jokabidea, bai Txina-n eta bai beste leku askotan be. Azeria beti azeri. Ba-dakie ondo katolikuen indarra nondik datorren, Erromako arriari sendo batuta egotetik. Eta kristiñautasunari bere indarra kentzeko, auxe dala biderik onena: batasuna apurtutea, Aita Santuari menpetasun ukatuaz, bakotxa bere aldetik ibiltete. Batasunik bageko kristiñauak ariu jausten dira otsoaren erpeetan, artzain bako ardiak legez.


Sarritan arerioak emoten deuskue ikasbidea. Ikasi daigun, ba, euren gandik Eleizako oiñarriri sendo lotuta egoten, ikasi daigun Erromako Aita Santuagaz esanekoak izaten. Bera dago jarrita kristiñau fede zuzena guri erakusteko. Arieri jaramon egiñaz, ba-dakigu zuzen goazela. Ez gara galduko, munduko olatuak ez gaitue azpian artuko.

Zenbat ekatx, eraso eta persekuziño ezagutu dituan Eleizeak bi milla urteren buruan! Eta ekatxik gogorrenak ezтира beti izaten gorputzeko bizitza kentzen dabena. Askoz txarrago dira kristiñau fedearen barrutik usteltzera datozenak, uste ta eretxi okerrakaz fedea alperrik galduta descogin gura dabena. Fedea da gure argi gidaria munduko illunpean artean, eta fede zuzenaren iturria ba-dakigu zein dan: Pedroren arria, Erromako Aita Santua.

Ez daiguzan iñoz aztu Kristok zerura joatean esaniko herbak: "Orra, zuekaz egongo niaz, arik eta mundua amaitu arte". Zelako segurantzeta emoten deuskuen urregorriko berba onek! Eleizeak milla arrisku ezagutu ditu bai, egongo da milla bider ito-agiñean, baiña jaungoikozko indar batek eusten dio beti. Azkenean, eztagu zelan, baiña ate-ostean gorderik dagoan esku batek eusten deusa beti. Au da Eleizearen misterioa. Eta Eleizean, Pedroren arria da gure itxaropen guztia.

Villasante

Erroma'ra begira



Egun auetan negarra ta poza nastu dira gure errietan. Eta negar, poz eta itxaropen onen iturburua Erroma izan dogu. Bai. Urriko bederatzitik gaurarte Kristauerria Erroma'ra begira euki dogu. Urriaren bederatzi goizaldean Aita Santuaren medikuak, gixien uste genduanean, «il Papa e morto», «il da Aita Santua», csan euskunetik gero, amaika negar malko ixuri dira Kristauerrian. Umezurtz gelditu gara. Beti geugaz izango zala uste genduan XII'garren Pio zerurantz joan yaku.

Izan be, gero, eriotzak ez dauka errukirik. Bere atzamarretatik ezin iñork igesik egin. Langille, errege naiz Aita Santu izan, danori yatorku geure ordua.

Biotzez maite genduan Aita joan yaku; egiz maite ginduzan Aita Santua il yaku. Au dala-ta, munduko errebista ta periodiku edo eguneroko guztiak ez dabe beste zeresanik euki egun onetan. Txarto berba egin dabena be izan dira, baiña, kritika zorrotz orregaitik il barri dogun gure Aita Santua, urte gitxi barru aldaretan ikusiko dogu.

Mundu guztian zabaldu da bere eriotzaren barria. Agintaririk aundienen telegramak eldu dira Erroma'ra euren naigabea erakusten, munduak izan dauan gizonik aundiena galtzeaz. Errusi'tik izan ezik, ia beste Laterri edo Estadu guztietako sentipen mingarriak entzun dira Erroma'n. Izan be, munduko aundien artean urtero-edo egin izan diran enkuestatan, zein izan dan urte orretan munduko gizonik aundiena, bost edo sei aldiz agertu izan da XII'garren Pio.

Ona, numeroetan baiño ezpada be, bere bizitza.

Jaiotza.—Erroma'n jaiotzean Pio XII'garrena 1876'ko Martiaren 2'an. Zelso ta Julian Santuen Parrokian bataiatu eben jaiotze bi egunera. Felipe ta Birjina bere gurasoak. Semetxoari, barriz, Eujenio jarri eutsen izena.

Abade ta lenengo karguak.—Emeretzi urtekin, batxilleratoa amaitu ta gero erne yakon Seminariorako gogoia. Guraso onak ez eutsen ezetzik esan, pozik itxi baiño, Jainkoak deituten eutson bidetik jarraitzen.

1899'ko Udabarrian —XIX'garren gizal-diak azken urtea— emon eban Meza barria Eujenio Pacelli'k.

Leon XIII'garrena genduan orduko Aita Santu. Oneri San Pio X'garrenak jarraitu eutson. Aita Santu biak ezagutu eben abade gaztearen buru argia ta eurekin Vatikanoko jauregietan euki gura izan eben, gorabera guztiak zuzentzeko laguntzaille.

1917'an, Europako gerrate barruan, beste Aita Santu batek, Benedikto XV'garrenak, bere ordekotzat bialdu gura izan eban Alemanira. Orretarako Obispo egin eban, eta olan Munitx eta Berlin'era joan zan. Guztira, amabi urte egin ebazan Eujenio Pacelli'k Alemania lurretan.

Erroma'n dogu barriz be 1929'an. Bere ondoan gura ebala-ta, Pio XI'garrenak dei egin eutson. Eta Kardenal egiñik, Estaduko Sekretario aukeratu eban. Ardura aundienetako kargua, Aita Santuaren lenengo la-

guntzaille da-ta. Bederatzi urte igaro euskuzan zeregin onetan. Pio XI'garrena il egin yakun 1939'an. Aita Santu barria aukeratu bearra egoan.

Aita Santu.—Kapilla Sixtina'n batzen ei dira Kardenalak Aita Santu barria izentatzeko. Estufatxo bat dauke Kardenalak dagozan gelan. Tximiñi luzea dau estufatxo orrek, jauregiaren tailletutik ikusteraiñokoa. Lenengo botaziñoan Aita Santurik ezpado, iasto busti apur bat erretan dabe. Zertarako? Tximiñiko kee baltza ikustean, jauregi aurrean dagon jendeak Aita Santua ondiño eztabela izendatu jakin deian...

Bi bider ikusi zan kee baltza 1939'an. Irugarrenean, barriz, kee zuria: Aita Santu barria ba-genduan!

Aita Santu ori Pacelli Kardenala izango zan itxaropena eukan erriak, oso buru argikoa ta Santua zalako fama eban-da. Eta egian egoan erria! Eujenio Pacelli, une arexetatik Aita Santu Pio XII'garrena biurtu yakun.

Eta gaur ba-dakigu benetako santua izan dana. Orregaitik erriaren negar-malkoak.

Bere Aita Santutzako lanik aundienak.—Egin be gauza asko egin ditu gure Aita Santu il barriak bere emeretzki urte onetan.

56 Kardenal barri aukeratu ebazan: 32, 1946'an eta ogetalau 1953'an.

81'tik gora dira aldaretara jaso dituan gizon-emakumeak: 39 Santu ta 52 Beato.

Bere enziklikak, au da, munduko Obispo gutzietari ta kristau erri osoari zuzendutako karta luzeak, 41'eraño eitzen dira. Eta beste diskurso, sermoe labur edo karta txikiak ez dauke neurrik, konta eziñak dira. Filosofo, mediku, jakintsu, agintari, arrantzale, modista, baserritar, zapata-konponetzaille, deportista... danentzat euki dau berbalditxo samur-bero bat. Eta zenbat kon-

sideraziño bera ikusten joan diranekin? Erroma'ra joan direanak esango dabel!

Urte Santu bi izan doguz bere emeretzki urte onetan, eta 1954'ko Urte Santuan Ama Birjiña gorputz eta animaz zeruetara igon zala siñistera beartu ginduzan.

Itz bitan, ba, Aita aundi bat, santu bat, izan dogu XII'garren Pio.

Jaungoiko Onak, ondo lortu daben atse-denera eroan deusku gitxién uste genduan. G. B.

Ba-dau jarraitzaille bat

Urriaren 25'etik 28'ra, danok radioan sartuta gengoan, Erroma'k zer esango. Azkenean, 28'ko arratsaldeko bostak eta ogeian, amaikagarren keia zuria izan zan: ba-daukagu, ba, Aita Santua. Aingeru Joseba Ronkalli dogu Yon XXIII izenagaz Aita Santu aukeratu deuskuen kardenala.

Soto il Monti, Bergamo probintzian, bere jaioterria. Jaiotz eguna 1881'ko Zemendia- ren 25. 1904'an Mezdun. 1925'an Obispo. 1953'ko Urtarrillean Kardenal eta iru egun barru Venecia'ko Patriarka. Paris'en Aita Santuaren ordezeko izana. Politiku ona, santua eta arazoak ondo eroaten dakiana.

Egun auetako egunerokoak diñoenez euskalduna ei dau bere apellidua. Bere aurretikoen bat naparra ei zan, Naparroa'ko Erronkal (Ronkalli) ibarrekoa.

Orain lau urte gure Euskalerrit'etik igaro zan eta baita errien baten lau egun egin be.

Aldizkari ta egunerokoetan agertzen joango dira bere bizitz eta itzaidiak. ANAITA-SUNA illeroko onen orrialdeak be baten baiño geiagotan izango dabe Aita Santuaren deiak zabaltzeko lekua.

Ondo etorria gure Yon XXIII'garrena. Egunero bere alde otoi egin daigun, danon Aita dogu-ta.

Irlanda-ko Barriak

Venezuela-tik Espaiña-ra, «Montse-
rrat» transatlantikoan kapellau lez nen-
torrela, egotaldi laburtxu bat egin gen-
duan Puerto Espaiña-n, Antilla Txikie-
tako Trinidad ugartean.

Bertan embarkatu zirean fraille do-
minikano bi, zuri zuri jantziak. Bat
zaarra, irurogetabi urtekoa. Bestea gaz-
tea, ogetamar urte or or eukiko zituana.
Biak zirean Irlandarrak, eta visitalditxu
bat gitera joiazan euren aberrira.

Verba egiteko, biakaz ondo kompon-
duten nintzan. Zaarrak, frantses ta es-
paiñol apurtxu bat ekian; eta gazteak,
latiñez polito egiten eban.

Nik ba-nekian, Irlanda guztiz katoli-
koa zala; verbeta aparteko bat eukola;
eta gauza askotan Euskalerrriaren antz-
ekoa zala.

Baiña oneek gauzok obeto jakin gura
nituan; Irlandarren euren agotik ezagutu
nai nebazan.

Orregaitik, arratsalde baten, popako
barrean jezarrita, fraille gazteak eta
biok alkar verbeta au euki genduan.

* * *

—Zenbat zarie Irlandarrak?

—Irlandan bertan lau milloi terdi.
Baiña asko dira erbestean bizi direanak.
Gure aberritik gente askok urteten dau
kempora. Atara kontuak: emeretziga-
rren gizaldiaren asikeran, bederatzi mil-
loi giñean Irlandarrak; eta orain, orren
erdiak bakarrik. Gaur egunean, emigra-
ziñoa da Irlandako gobernaren pro-
blemarik aundienetarikoa.

—Eta zegaitik urteten dabe ainbestek
kempora?

—Asko dira orren kausak. Gure abe-
rria pobrea da, eta txikia. Ez dauko
leenengo materiari: ez burdiñik, ez
ikatzik, ez petroliorik. Eta olan ezin
leiteke industria aundirik euki. Orain

eun urte, euki genduan, bai, lanazko
industria ederra; baiña gero ta gero be,
danak lur jo eban Inglaterrako indus-
triaren kompetenziagaitik. Aspaldion,
baserritarren bizimodua asko obatu da,
eta labrantzea naziño guztian ondo or-
ganizatu da. Agrikulturearen aurrera-
kuntza onetan parte aundia artu dabe
eleizgizonak. Igaz il zan, ain zuzen be,
Canon Hayes abadea, baserritarren sin-
dikatuak fundatu dituana. Orregaitik,
gaur egunean, urietatik eta kapitaletatik
urteten dabe emigrante geienak. Baiña
alan ta guzti-bere, asko dira, guztiz as-
ko, aberria itxita, erbestera doazanak.

—Extranjeruko ze lekuetara joaten di-
ra?

—Geienak Inglaterrara bertara. Gero
Canadara, Ameriketako Estatu Alkar-
tuetara ta Australiara.

—Eta gero, aberastuta-edo, ez dira
etorten barrira Irlandara?

—Ez. Banaka batzuk izan ezik, danak
lotuten dira biziten erbestean. Gitxi, oso
gitxi biurtuten dira aberrira.

—Emigraziño ori, aintxiñatik asi da
zuen artean?

—Bai. Ba-dakizu: gure erria ez da
iñoiz aberatsa izan, eta aintxiñatik sen-
tidu izan dogu lurralde obetara joateko
barrizana. Leen gaiñera, beste motivu
aundi bat eukiten genduan aberritik al-
de egiteko: erlegiñoaren persekuziñoa.
Orain Irlanda, errepublika libre bat da.
Baiña, askatasuna lortu artean, gizaldi
asko igaro izan doguz Inglaterraren
menpean. Unada luze orretan, batez-bere
amazazpi ta amazortzi sekuluetan, In-
glesak eragozpen aundiak ipinten eus-
kuezan katolikoak izateko. Lurak ken-
tzen euskuezan, kartzelan sartzen gin-
dwezan, eleizak eta eskolak erre edo
zarratu. Egokera larri orretan, Irlanda-
tik urten egin bear.

—Gaur egunean zein da Irlandako
aberaskuntzarik aundiena?

—Labrantzea eta labrantzatik datozan industriak: esnea, mantekillea, gaztaia, aragia, liñoa, lanea, tela fabrikak, eta abar. Industria astuna be, ba-daukogu zerbait, uri aundietan. Oraintsu asi jakuz Alemanak eta Italianoak automobil fabrikak egiten, euren industria libra esterlinearen zonan sartzeko asmoz.

—Ze urtetan lortu eban Irlandak bere askatasun politikoa?

—Ba... 1921-ean. Urte orretan sortu zan Irlandako Errepubliketa. Baiña, zoritxarrez, naziño osoa ez da oraindiño libre. Iparraldeko zati bat, Ulster deritxona, Inglaterragaz alkartuta geratu zan.

—Eta zegaitik divisiño ori?

—Iparraldeko Irlandarrak, jatorriz Inglesak eta erlegiñoz protestanteak direalak. Orixe da divisiñoaren kausa bakarra.

—Inglesak zelan sartu zirean ba Irlandan?

—Amairugarren gizaldian asi zirean gugaz gerran, eta geldi geldika Irlanda osoa artu eben eurentzat. Amaboskarren gizaldian Inglesak zirean gure agintari bakarrak. Asikeran ondo portatu zirean gugaz. Orduan, eurok eta gu, danok gintzazan katolikoak. Soldadu geienak, Inglaterrara biurtu barik, geure artean geratuten zirean, geure verbetea ikasi, Irlandako emakumeak ezkondu, eta azkenean bertokotu egiten zirean. Baiña gero, protestantismoa agertu zanean, Inglesak ez zirean naastetan gugaz: gure erlegiñoari persegiduten asi zirean, lurrik ederrenak kendu euskuezan eta geienak Iparraldean batu zirean. Eta Iparralde ori, orainarte olantxe geratu da: Ingles eta Protestante. Orra or Irlandaren divisiñoaren jatorria ta historia.

—Eta zuek, Egoaldeko Irlandarrok, konforme zagoze divisiño orregaz?

—Bai zera! Danok gagoz kontra. Errepubliketaz batera (1921-ean), divisiñoa sortu zanean, beingoan asi zan gerra zivila. Urte berdi iraun eban burrukeak.

Nire aitita batek, bertan galdu eban bizia. Gerra beroa amaitu zan, baiña oraindiño bizi bizirik dabil gerra otza.

—Ba - daukozue batasuna lortuteko itxaropenik?

—Itxaropena, azkenen galtzen da. Baiña, Ipar-Irlandako gauzak, orain dagozan lez irauten badabe, nekez eta dolez jaritxiko dogu batasuna. Eleziño sistema osoa, euren aldekoa da. Polizia ta gobernua, Inglesen eskuetan dagoz. Gaita da alde batetik bestera pasatzea, fronterea ondo ondo jagonda dago-ta. Adua-nea, guztiz zorrotza da. Belfast-en, Ipar-Irlandako uri nagusian, artegatasun aundia sentitzen da, persekuziño demporan sentitzen zanaren antzekoa. Batak eta besteak ez dira kompontzen inondik ino-
ra, batez-bere eskola ta edukaziño kontuan. Protestanteak ez dira konvertietan garau bat be ez. Gaur egunean beintzat, batasunaren etorkizuna ez da qtaia. Indarraren bidez ezin geinke ezer lortu. Inglaterraren kontra gu ez gara gauza. Orrezaz gaiñera, Obispoak eurak-bere kondenatu egin dabez ixillean diarduen movimentu indarzale guztiak, batez-bere Irish Republican Army izenekoa. Gure gaurko itxaropenik aundiena auxe da: Ipar-Irlandako katolikoak mundura ume asko ekarri daiezala.

—Orain beste gauza bat. Inglaterraren menpean ainbeste urte egonda gero, gorde aal izan dozue zuen verbetea zaarra?

—Bai. Baiña asko galdu da. Oeste aldean bakarrik konservatu da; baserriarren eta arraintzaleen artean. Berreun milla gitxi gorabeera izango dira, eguneroko alkarrizketan erabilten dabenak.

—Eta gobernua lan egiten dau, naziño verbeteari bizia emoteko?

—Bai, asko gaiñera. Dirua zenbat gura gastetan dau urtean urtean, gure izkuntza zaarra zabaltzeko ta sendotuteko. Eskola guztietan irakasten da gaelikoa. Auxe da gure verbetearen izena. Iru unibersidade daukoguz, eta euretarike baten gaelikoz egiten da dana. Profesiño guztietarako gaelikoa jakin bear da.

—Erriak lagunduten deutso gobernua-
ri aalegin salvagarri onetan?

—Bai eta ez. Batzuk, obligaziño sa-
gradu bat lez artu dabe euren gain,
beti ta edonon gaelikoz itz egitea; eta
eginbear orren seiñaletzat, erastun bat
daroe jantzian josita. Novela laburrak
polito irakurten dira. Teatrora be, nai-
koa doa gentea. Asko dira astero ta
illeroko periodikoak. Baiña zoritxarrez,
gaur egunean, Irlandar geienak ez deu-
tse jaramon aundirik egiten gaeliko bi-
ziari. Bai, ikasten dabe eskoletan; ira-
kurten ditue aintxiñako eskribitzaille
klasikoak. Baiña gero verba egin, ori
ez dabe eguno-bere egiten, ez etxean
ez kalean. Errezago egiten jake inglesa.
Eta, euren ustez, probetxugarriagoa.
Umeak, zelan edo alan ikasten dabe
kolegioetan. Baiña edadekoak, umetan
ingles eskoletara joan zireanak, orreek
ez dakie itzik-bere gaelikoz verbetan.

—Eta gaelikoa bera, egokia da mundu
modernuko gauzak eta ideiak adierazte-
teko?

—Bai, ondo be. Munduko izkuntza
guztiak lez, gaelikoak be eurrez artu
ditu griegotik eta latinetik verba tekni-
koak eta zientifikoak. Gaiñera, kaleko
ta periodikoetako verbetan, inglesetiko
itz asko ta asko erabilten dira: euneko
berrogei, bai izango dira inglesetik ar-
turikoak. Gure artean, olerkarien eta li-
teratuen artean izan ezik, ez dago pu-
rismo problemarik. Gure izkuntzearen
problema bakarra, auxe da: Bizi.

—Zure ustez, goiz edo berandu, il
gingo da gaelikoa inglesaren aurrean?

—Ez dot uste. Gobernuari oraingo
metoduak ez deutso ondo urten. Ori
egia da, eta ezin geinke ukatu. Baiña
ori gorabeera, aurkituko dogu beste bi-
de bat, gure izkuntza zaarra salvetako.
Nire eritxiz, Irlandan verbeta biak bi-
ziko dira bakean alkarren ondoan, eta
Irlandar guztiak bilingualak izango di-
ra.

—Eta orain, Irlandako katolizismoa-
ren gaiñean preguntatxu batzuk egin
gura deusudaz. Zelan kumpletan dabe
Irlandako katolikoak pazkozko eta do-
meketako obligazinoa?

—Guztiz ondo. Ez da neuk esatea-
rren, baiña gure artean ia dan danak
doaz eleizara. Gizonezkoak naiz andraz-
koak: danak bardin. An arritu egiten
gara, eleizara joan barik iñor geratuten
bada.

—Atara dozue estadistikarik pazkozko
komuniñoaren gaiñean?

—Bai. Orain lau urte egin zan ja-
kinketa bat 80.000 habitanteko erri ba-
ten. Eta ba-dakizu zenbat geratu zirean
pazkozkoa egin barik? Arritu zaitez:
euneko bi bakarrik.

—Eta Irlandatik erbestera urteten da-
benean, izaten dira ain eleizbidekoak?

—Geienak bai. Batez-bere Amerike-
tara ta Australiara doazanak. Inglate-
rrara joaten direanak barriz, asko gal-
tzen dira.

—Ona da benetan, zuen artean, erle-
giñoaren egokerea. Esango zeunskit ego-
kera orren kausaren bat?

—Duda barik, Irlandar kristiñauak
guztiz asko zor deutsegu eleizgizoneri.
Eureri eskerrak gorde dogu gure jenea.
Eundazak dira, Irlandako historia lu-
zean, Kristogaitik euren odola ixuri da-
ben abade ta frailleak. Orain eta leen,
eleizgizonak —Obispoak naiz baserrie-
tako abadeak— erriko semeak dira. Ez
dira iñoiz izan aberatsak. Eta erlegiñoa
ez da eguno izan ofiziala.

—Eta amaituteko, esaidazu: Fraille
dominikano asko zarie Irlandan?

—Bai, naikoak. Antxe gagoz amairu-
garren gizalditik aurrera.

—Eta zetan diarduzue?

—Geienak, erririk erri ibiltan gara
prediketan. Batzuk, kolegioetan irakas-
ten geratuten dira. Eta beste batzuk,
gu biok lez, erbesteko misiñoetara joa-
ten dira.

* * *

Auxe esan eustan fraille gazte arek,
arratsalde aretan, «Montserrat» trans-
atlantikoan Espaiñiarantz gentozala.

Berriatua

Mariskal Montgomery katoliko?

1939'tik 1945'era bitarteko gerratea go-goan daukonak, Bernardo Law Montgomery'n izena ezin aaztu leike. Montgomery izan zan irabazi ebenen aldeko jeneralik ospetsuena. Intelijentzi aundiko gizona; trikia izanarren gogorra ta borondatetsua. Eisenhower'en ondoan be, Mariskal Montgomery aundi gelditzen zan.

1942'an, Afrika, Sizilia ta Italiako ejerzitu guztien nagosi izentatu eben. Gizon bizkorra zan gerra kontuetan. Arerio guztien adoreak eta bere ejerzituen indarrak ondo neurtuten ba-ekian berak. Afrikan garaitu ondoren, Italia'ra ta gero Prantzi'ko Normandia'raiño be garaille eldu zan Montgomery.

Bere gudariak, bene-benetan be, gizon aunditzat euken; eta gizontxo onek bere bizitasunagaz eta indarragaz, adorea emoten eutsen. Gerra arloetan beintzat, iñor izatekotan, Montgomery ba-zan gizon aundia.

Normandia'ratu zanekeze, Ipar-Prantzi'ko gudari guztien zuzendari egin eben.

Azkenengo gerrate gogorrean izarrik geien irabazi zitun gizon onek, 71 urte daukoz. 1887'an Zemendi'ko 17'an jaio zan Inghlaterra'n. Berrogeta amaika urtegaz «Jeneral Mayor» izatera eldu zan, eta berrogeta amaiaugaz, «Jeneral» zan. Berrogeta amazpita amazortzi bitartean lortu eban bere famarik aundiena.

Buru argiko gizon onek, konseju asko emon izan deutsoz, bere lagun zaarra eban Wiston Churchill'eri. Churchill, Inghlaterra'ko presidente zanean, Montgomery eban lagun-tzaillerik onenatarikoa. Eta Inghlaterra'ko politika bideetan Mariskal au izan da indar-tsuenatarikoa.

Baiña urte batzuk dirala, Bernardo Law

Montgomery'k politika arazoak alde batera itxi dauz. Gaur baso etxe baten bizi da, bere familiagaz, bake santuan. Eta mires-tekoea: bere bizitza guztia kaiñoi ta fusil artean igaro dauan agure aundi onek, orain maiteen lorak ei dauz.

Montgomery ospetsuak negar ta odol asko ikusi dauz, eta orrenbeste arantza ikusteak, loren maitale izatera eroan dabe.

Eta ainbeste sufrimentu ikusi ta ezagutu dauzan gizon onen biotzean lora bat erne da: Itzaropena. Mundu donge onen ostean, arantza gabeko lorategi baten esperantza bizia. Eta bere biotzean fedea be ernetan asi ei da.

Montgomery, oraintzu il yakun, Aita Santu maitearen lagun zintzoa zan. Azkenengo urteotan ogeta amabi bider egon ei dira biak berbetan. Montgomery'k, Pio XII'garrena asko maite eban. Eta onen eriotz ostean marmar pozgarri bat entzun da: Bernardo Law Montgomery katoliko egingo dalakoa. Ori olan bada, katolikoak zorion aundia genduke. Montgomery'n izena aundia da Inghlaterra'n eta bera katoliko egiteak, bat baiño geiago zuzen bidean ipiñiko leuke.

Inghlaterra'koak, Enrique VIII'garrena zan erregearen erruz apartatu ziran benetako eleizatik, 1531'an. Baiña gaur, borondate oneko asko Erroma'ko eleizatik urrean bizi dira. Eta onek Erroma'ko eleiza benetakoaan sartzeko, Montgomery lako gizon ospetsu batek pauso ona emotea naiko litzake. Olan-txe izan da beste batzutan be. Jon Enrike Newman konbertidu zanean be asko benetako eleizara etorri ziran. Newman Inghlaterra'tarren eleizako Arzobispoa izan zan konbertidu baiño lenago. Montgomery'gaz be beste orrenbeste jazoko al da!

JON KEPA

Bizitza

ARANZAZU errebistatik
Bizkaieratua

Bizi?

Zer esan gura dau?

Zein bizi da?

Zein ez da bizi?

Arri bat, bizi alda? Ez.

Lore eder bat bizi al da? Baietz esango.

Txori bat? Baita.

Gizona? Baita.

Aingerua? Baita.

Jaungoikoa? Bai.

Zer da, ba, bizitza? Zer daukoe bardiñean lora batek, txoriak, gizonak, aingeruak, Jaungoikoak? Ori izango da bizitza.

Berez ibiltzea; Ori da bizitza.

Erleju bat ez al dabil berez? Baiña bestegandik arturiko ibillerakin; bestegandik arturikoa eta azalekoa bakarrik.

Loreak bai, ba-dau bizitza: berez azten da, berez artzen dau azteko ta indartzeko bear dauan janaria.

Txoriak eta gizonak bardin: txoriak gaiñera zentzuna be ba-dauka eta gizonak adimena. Txori ta abere guztiak zentzun bizitza dauke: min artzen dabe, gosea sentitzen dabe... eta gizonak orren gaiñera berba egin daike bere lagunekin, gauzak ondo pentsatzen ditu...

Aingeruak adimen bizitza bakarrik dau.

Jaungoikoa bizitza bera da, bizitz guztien iturri.

Jaungoikoak, aingeruak, gizonak, txoriak, loreak biziera bardiña ete daukoen? Ez.

Iru eratako biziera dala esan ei dabe jakintsuak:

a) azierazkoa, azierarena: Lorak, be-darrak... azi eta azteko bear janariak berez artzen dabez. Ez dabe ezer sentitzen.

b) zentzunezkoa, zentzunarena: Txori ta abereak: instinto baten bidez bizitzeko bear dituen gauzak aurkitzen ditue, min artzen dabe, gosea sentitu...

d) adimenezkoa, adimenarena: gizonak beste bizitz orren gaiñetik adimenezkoa

dauko, gauzak pentsatu leikez, berba egin leike, amets be bai...

Loreak azieraren bizitza bakarrik dauko.

Txoriak zentzunarena be bai.

Gizonak orren ganera, adimenezkoa.

Grazian bizi dan animak, orren gaiñera, Jainko-bizitza daroa barruan.

ABERASTU ZURE

EUSKEREA

Ona emen, ANAITASUNA-ren numeru onetan agertzen direan berba batzuk:

ADIERAZO, jakin eragin, expresatu.

AIN ZUZEN BE, alan bearrez. Erderazko *precisamente*.

ALAI, alegre.

ARTEGATASUN, sosegurik eza.

AURKITU, topatu, billatu.

BILINGUAL, eguneroko alkarberbetan izkuntza bi darabiltzana. *Bermeoko erria bilinguala da.*

BIURTU, barrero joan. *Etzera biurtu zan.*

DOLEZ, nekez, penaz.

EGOALDE, suraldea, sudaldea.

EGUNO, inoiz. *Ez da eguno etorri.*

ERAGOZPEN, embarazua, impedimentua.

ERASTUN, anilloa.

ERITXI, ustea. *Nire eritxiz.*

EURREZ, asko, ugari. *Gaelikoak eurrez artu ditu griegotik berba teknikoak.*

EUNDAZAK, eun ta geiago. Erderazko *cien y pico*.

GIZALDI, eun urteko unadea, sekulua. Erderazko *siglo*.

IGARO, pasatu. *Urte asko igaro.*

IPARRALDE, 'nortaldea.

IRAUN, duraziñoa euki. Erderazko *durar*.

ITZ EGIN, berba egin.

IZKETA, berbeta.

IZKUNTZA, berbeta.

IXURI, bota. *Odola ixuri*. Erderazko *derramar*.

JARAMON EGIN, kasu egin.

JARDUN, zerbait egiten egon. *Zetan diarduzu?*

JARITXI, lortu, konsegidu.

LOTU, geratu, gelditu. *Etzean lotu da.*

LORTU, jaritxi, konsegidu.

LURRALDE, lur bazter aundia. Erderazko *región*.

OLERKARI, poesiak egiten dituana. Erderazko *poeta*.

UGARTE, islea. *Ozeanian ugarte asko dagoz.*

UNADA, dempora zatia. Erderazko *temporada, época*.